



❖ 2009 URTEKARIA

Hernaniko historia, artea, musika eta gaurkotasuna, besteak beste, Urtekarian

Urtekariaren aurkezpena gaur arratsaldean egingo dute, 19:30etan, Udaletxeko Batzar Aretoan. Bertan biltzen dira Hernanirekin lotura handia duten 23 egilek egindako notizi eta erreportajeak.

GAUR aurkeztuko dute udaletxean 2009 urtekaria. Udal Kultura Sailak eta Artxibo Zerbitzuak argitaratu du. Guztira 23 artikulua eta erreportaje biltzen dira bertan, gehienak hernaniarrek egindakoak. Urtekariaren helburuetako bat izaten da hernaniarrek herriari buruz ikasten jarraitzea.

Lehenengo eta oraingo kontuak biltzen ditu

Urtekarian Hernanirekin zerikusi zuzena duten gaiak argitaratzen dira urtero. Aurtengoa 16garren urtekaria da, eta garrantzi berezia eman diete hernaniarrek egindako lanei.

2009 urtekariak era guztietako erreportaje eta notiziak biltzen ditu, lehenengo eta gaur egungo kutsua dutenak. Alde batetik, garai bateko Hernaniko kontuak ekaritzen ditu gogora, horien artean, historikoak. Bestetik, besteak beste, gaurkotasun osoa duten notiziak ageri dira ber-



2009 urtekariako azala.

tan, artea, musika eta kirolarekin zerikusia dutenak.

Hernaniko edo inguruko 23 egilek hartu dute parte, horien artean honakoek: Leire goñi, Gorka Bereziartua eta Urko Apaolaza.

Urtekaria 8 euroan salduko da, Elkar, Leokadisti eta Sebas liburu dendetan. ||

2009 urtekariako aurkibidea

Hernaniko Udala mugikortasun seguruarekin. Bide Heziketa Hernanin. Ramon Azpirolea eta Jon Retegi.

Baserriko ikasketadun artista, Anastasia Leunda. Leire Goñi Hernaniko printzak. Plaza Berria. Luix Errazkin.

Ernani. Nere borda, Hernaniko lorategi botanikoa. Iñaki Sanz Azkue eta Anais Mitxelena.

Norteko trenbidea Hernaniko baratzetatik. Urko Apaolaza.

El viaducto de Txingurri Txulo. Rescate de una valiosa y desconocida pieza del patrimonio cultural de Hernani. Imanol Jimenez

Jose txo Zapiain. Iban Oiartzabal.

Olegario Garin, bertsolari hernaniarra. Antton Garin.

'Las Mercedes' fabrica de cemento de Fagollaga. Luis Lerchundi.

Joxe Mari Aizega (Mondragon Unibertsitateko errektoreordea): 'Urte batzuk barru ohartuko gara Bologna prozesua beharrezkoa zela unibertsitatean'. Jon Odriozola

Peña Otaño, 50garren urteurrena. Joxemiel Azurmendi eta

Joan Mari Jalón

Urteurrenak. Euskal Jaiak Hernanin, 1909-2009

Karitateko Alabak, 125 urte Hernaniko herriaren zerbitzura. Laura

Pacheco

Ignacio Iruin (Alcalde de Hernani, 1976-1979). 'Recuerdo con emocion y alegria la izada de la ikurriña en el ayuntamiento tras la dictadura'.

Jose Mari Martinez

Juanjo Uria (Alcalde de Hernani, 1979-1983). 'No tengo la mas minima duda de que Euskal Herria tiene futuro' Jose Mari Martinez

Oihana Gañcerain, heredera y futuro de Sidras Zelaia. Oihana

Gañcerain y Elena Sierra.

Alfonso Maria Zabala, apaiz komediantea. Gorka Bereziartua.

Biharamunean. Uxue Apaolaza

Hernaniko Musika Eskolak, hogeita bost urte. Iñaki Eguren.

Vision artistica de Hernani. Torre Onddi.

Agur Angel, eskerrik asko!

Cronica 2008ko kronika. Mikel Zapiain.

❖ EREÑOTZU

Olak elkarteak batzarra egingo du bihar

Olak Ereñotzuko auzo elkarteak batzarra egingo du bihar. Bertan gai zerrendan, aztergai izango dituzte besteak beste, ondorengo gaiak: Auzo Udala eta martxan dauden obra eta azpiegiturak; horien barruan atez atekoa eta saneamendua. Batzarra goizeko 11:00etan hasiko da, Ereñotzuko kultur etxean. ||

❖ INMACULADA IKASTETXEA

Santo Tomas eguna ospatuko dute gaur

Inmaculada ikastetxean Santo Tomas eguna ospatuko dute gaur, goizeko 10:00etatik aurrera. ||

❖ PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTX

Usurbilen izango den emanaldirako sarrerak salgai Hernanin

Argiak Pirritx, Porrotx eta Marimototxen ikuskizuna antolatu du Usurbilen. Bihar izango da, 16:00etatik 18:30etara, eta sarrerak Hernanin bertan eros daitezke, Leokadistin, 5 euroan. Egunean, bertan, 6 euroan izango dira. ||

❖ ITURRITXO AUZO ELKARTEA

Jaiotza jarriko dute

Iturritxo auzo elkarteok Jaiotza jarriko dute bihar, Atarrabiyo parkean, 10:30etatik aurrera. Auzotako gazte eta helduei dei egin diete parte hartzeko. ||

❖ AAM

Kontzentrazioa Zinkoenean

Ostiraleko kontzentrazioa egingo du gaur AAMk. Zinkoenean izango da, 20:00etan hasita. ||

Ibon Casas musikari hernaniarrak Cuatro telebista kateko programan hartuko du parte gaur

Emanaldiak *21 dias a ciegas* du izena, eta gaueko 23:20etan hasiko da.

IBON Casas Hernaniko musikariak emanaldia eskainiko du gaur gauan, telebistako Cuatro katean. Emanaldiak

21 dias a ciegas du izena, eta ezintasunarekin zerikusi zuzena du. Gaueko 23:20etatik aurrera izango da. ||



Jorge ta Yola
ARRI taberna
Pizzak eta Pasta freskoak
Etxera eramateko prestatzen ditugu
Egin ezazu zure eskaera telefonoz
943 33 34 37
Bidebieta plaza 2 (Antziola berrin)

ADI !!! ...
...GABONETAN :
Astelehena 21 eta Astelehena 28 IREKITA
EGUNERO EGUERDITAN ZABALIK
Ondo ondo pasa gabonetan !!!
GOXATU GURE TERRAZAN !!
(Umeen jolaserako aproposa)

gse
Asesoreak
Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua
Kardaberaz 40 behea
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
www@gseasesores.net

Vanesa eta Miguelo
Harategia
AURREZ EGINDAKO JANARIAN (PLATOS PRECOCINADOS)
AUKERA ZABALA!...ETA ENKARGUZ:
Oilaskoa + Sagardoa **7,50€**
Karakolak **7,50€**
Larramendi, 17 - HERNANI

GABONETAKO ORDUTEGIA
ABENDUAK 21,22 eta 23 12
09:00-13:30 / 17:00-20:00
ABENDUAK 24
09:00-14:00
ABENDUAK 25
10:30-14:00
Enkarguetarako: 943 55 03 32

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941 ● **Gauzez:** **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA
GAUR Okerrera egingo du. Ipar ukituko haizea ibiliko da eta izotz galanta botako du. Prezipitazioa hastean, elur moduan egingo du. Gauzez eta egunez hotza izango da nagusi.
BIHAR Maila baxuetan elurra egiten jarraituko du, nahiz eta arratsalde partean altxerak joko duen. Temperatura maximoak 2-5°C artean ibiliko dira. (euskaime)

❖ TXANTXILLAKO BABES OFIZIALEKO ETXEAK

Txantxillan Babes Ofizialeko 30 etxebizitzak zozketan parte hartzeko, izena urte bukaera baino lehenago eman behar da

Etxebizitza hauek jabetzan hartuko ditu Udalak, eta zozketan parte hartzen dutenek Etxebiden izena emanda egon behar dute.

JOAN den urte bukaeran hasi ziren Txantxillako obrak egiten, eta aurreneko fasea ia bukatuta, berehala etxebizitzak egiten hastekoak dira. Guztira lau bloke egingo dituzte, horietatik 89 etxebizitza prezio librekoak, 33 hitzartutako prezioak eta 56 Babes Ofizialekoak. Azken hauetatik, 30 etxebizitza Udalak jabetzan hartuko ditu.

Etxebiden izena eman behar da abenduaren 31 baino lehenago
Hernaniko Udalak jakinarazi duenez, Babes Ofizialeko etxebizitza horiek jabetzan hartzeko, hitzarmen bat sinatu du laister Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailarekin. Udalak jabetzan hartuko dituen 30 etxebizitza horien

zozketan parte hartu ahal izateko, Etxebiden izena emanda egon behar da. Hortaz, jakinarazi dute, oraindik izena eman ez dutenek, abenduaren 31 arte izango dutela aukera. Horrez gain, zozketan parte hartzeko beste baldintzetako bat da Hernanin erroldatua egotea azken bi urteetan. ||

Zikuñagako Zikuzulon

Errapia festa izango da bihar

Festa goiz eta arratsalde izango da, eta besteak beste izango dira tailerrak, kontzertuak eta poesia. Aurtengoa 7garren edizioa da.

ZAPIGARREN urtez jarraian, Errapia festa izango da bihar Zikuñagako Zikuzulon (garai bateko eskolak). Festa Hernaniko artisten taldeak antolatuta du, goiz eta arratsalde. Bertan, besteak beste, artisten sormenak ikusteko aukera paregabea izango da.

Egun osoko festa

Aurten ere, egun osoko egitaraua antolatu dute Zikuñagan.

Goizean haurrentzako eskulak eta malabare tailerrak izango dira. Eguerdian berriz, indarrak berreskuratzeko bazkaria. Eta arratsaldean, bideo emanaldi ezberdinak, tartean kultur etxeko ikastaroan egingo diren kotoak. Horrez gain, izango dira poesia emanaldiak, eta *La zigarra y el grillo* taldearen kontzertua. Tartean txokolate goxoa hartzeko aukera ere izango da. ||



Aurtengoa 7garren edizioa da.

👁️ Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Ibon Casas eta 'rock itsua' (blind rock)

Ibon Fernandez Casas musikari hernaniarrak 'Cuatro televisión'go programa batean parte hartuko du. Emanaldia, '21 días a ciegas' izenburupean, gaur, abenduak 18, gaueko 23:20etan eskainiko da eta ezintasunari zuzenduta dago.

Ibonek, jaiotzez, ikusmen ezintasun serioa dauka. Horrek bizitza baldintzatu

badio ere (Altea, bere gidatxakurra beti ondoan) ez da inoiz kokildu bere musika sormen eta asmoak aurrera ateratzeko. Duela hogeitau urte eman zituen, pop-rock musika arloan, bere lehen pausok, benetako lagunen babesik falta izan ez zaion kitarjole, abeslari eta konposatzaile honek. Geroztik rock talde ezberdinetan parte hartzeaz gain, diska zerrenda luzea argitaratu du.

Gaur egun 'rock itsua' ren

sortzaile bezala da ezaguna Ibon. Egitasmo honetan dabil, gogor jo eta jo, kontzertuak, hedabideetan agerraldiak, elkarrizketak etab. Argitaratu berri du azken CDa bere konposizio berrieekin ('La pasta por delante', 'Apaga la luz y verás', 'Guztion amets galduak' ...).

Rock energiaren mugitzen den tren hau ez dadila gelditu!

Luix Gorrotxategi Zigarar
(KOXKA Elkarteko kidea)

Atez ateko zalantzak argitzen

Sortzen ditugun hondakinetatik zenbat botatzen dugu zakarrontzira?

% 70 inguru.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Alokatzeko edo erosteko etxe txiki baten bila nabil, Hernanin edo inguruetan (berritua edo ez).
Deitu: 943 33 11 83 - 656 721 492

Etxe bila nabil, 2-3 gela dituen. Lehenbailehen sartzeko. Pertsona arduratsua naiz.
Deitu: 638 349 760

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna.** Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, **gabonetako eskaintza: %20 aren deskontua**
1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzietan 2, behean.** Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antzietan 39 (Mendi mendian, 2).** 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Aseguruak **CATALANA OCCIDENTE**

Atzietan 30
Telf - 943-332440
Fax - 943-556602



Gabon hauean opariak egiteko zatoz **TRIP** azokara

TRIP azoka
abenduak 5etik · urtarrilak 5arte

%-70 arte

HERNANI
EZIAGO poligonoa
(AFEDE dagoen poligonoa)

TRIP azoka
11:00tatik 20:00tara
IGANDEAK BARNE
Tel: 648 512 068
Pol. Eziago 12 HERNANI